

# Euskararen Erabilera Normaltzeko Udal Araudiaren Lege Oinarriak



3

AHOLKU BILDUMA

© Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioa  
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritza. Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Wellington Dukea 2. Vitoria-Gasteiz  
Diseinua: Sormen Creativos  
Inprimatzailea: Estudios Gráficos Zure, S.A.  
Lege gordailua: BI-2.205-91  
ISBN: 84-457-0011-1  
2000 ale  
Argitaratze data: 1991ko urria

EUSKO JAURLARITZA  
EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA

ALURKINDEA

# Euskararen Erabilera Normaltzeko Udal Araudiaren Lege Oinarriak

Gasteiz, 1991ko urria

EUSKARAREN AHOIKU BATZORDEA  
EUSKO JAURJANITZA

Udal Araudietan Lege Oinarriak  
Euskararen Erabilera Normaltzeko

Oharra: Honako txosten hau 1991ko ekainaren 7an Euskararen Aholku Batzordeak egindako Osoko Bilkuran onartutakoa da.

## SARRERA

Legearen bidez ezarritako arauak bete behar dira eta hori erabakitzen duen erakundeak udalarena da. Udala herritarren arteko harremanak erabakitzen ditu eta hori erabakitzen duen erakundeak udalarena da.

Udalaren zuzendaritza erakundea udalburua da eta udalburuak udalaren zuzendaritza erakundea zuzentzen du. Udalburuak udalaren zuzendaritza erakundea zuzentzen du eta hori erabakitzen duen erakundeak udalarena da.

Udalaren zuzendaritza erakundea udalburua da eta udalburuak udalaren zuzendaritza erakundea zuzentzen du. Udalburuak udalaren zuzendaritza erakundea zuzentzen du eta hori erabakitzen duen erakundeak udalarena da.

## AURKIBIDEA

– Sarrera.....	5
– Arau orokorrak .....	7
– Udalaren barne jarduera .....	9
– Langileak kontratatzeko erizpideak .....	12
– Udal batzordeak.....	14
– Erakundeen arteko harremanak.....	15
– Udalaren eta herritarren arteko harremanak.....	18

## SARRERA

Euskal Autonomi Elkarteko Estatutuaren 6. atalak euskara Euskal Herriaren berezko hizkuntza dela dio eta, gaztelaniarekin batera, Euskal Autonomia Elkartean ofizialtasun osoa aitortzen du.

Azaroaren 24eko 10/1982 oinarrizko Legeak, euskararen erabilpena arauzkotzezkoak, dioenez herritarrak edozein hizkuntza ofiziale-tan jo dezake administraziora eta hau gai izango da, aipatutako Legearen arabera, herritarrari hizkuntza ofizial batetan zein bestetan erantzuteko. Administrazioa elebiduna izango dela dio uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak.

Herritarrek administrazio publikoekin harremanak euskaraz izateko duten eskubidea bermatzeko, euskera zein gaztelania zerbitzu-hizkuntzak izateaz gainera, lan-hizkuntza izango dira.

Euskeraren Aholku Batzordearen **Udaletako Hizkuntza Politikarako Proposamena-k** (1991ko ekaina) normalkuntzarako erizpide nagusiak eskaintzen zituen lanerako eta elkar hizketarako tresna bezala. Oraingo txosten honekin beste pauso bat eman nahi da eta euskararen erabilerari buruzko udal araudi batek kontuan izan beharreko lege oinarriak aipatzen dira, gai honi buruzko erabakiek oinarri sendoa izan dezaten.

Kontuan izan behar da, gaur egun Euskal Autonomi Elkartean udal legerik ez badago ere, lege hau izango dela udal araudietan aipatzen diren hainbat gai arautzeko bide egokia. Lege indarra izango lukeenez, derrigorrez aplikatzekoa izango litzateke, udal araudi bakoitzaren gaintik.

## ARAU OROKORRAK

— 1978ko Konstituzioaren 3. atala:

1. Gaztelania da Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainol guztiek jakin behar dute eta erabiltzeko eskubidea dute.
2. Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien Erkidego Autonomoetan berauen Estatutoei dagozkien eran.
3. Espainiako hizkuntza moeta ezberdinen aberastasuna kultur ondare bat da eta hura babes eta begirunegarri izango da."

— Euskal Autonomi Elkartearen Autonomi Estatutuaren 6. atala:

1. Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.
2. Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera sozio linguistikoaren ñabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna erregulatuz, eta beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte.
3. Hizkuntza dela-eta, ez da inor gutzietsiko.
4. Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia izango da erakunde aholku-emale.
5. Euskara beste euskal lurralde eta komunitate batzutatako ondarea ere izanik, erakunde akademiko eta kulturazkoek beroiekin izan ditzaketen harreman eta loturez kanpo, Euskal Herriko Komunitate Autonomoak eskatu ahalko dio espainol Gobernuari lurralde eta komunitate horiek kokaturik daudeneko Estatuekin itunak eta komenioak egin ditzala —edo eta hala behar izanez gero Gorte Jeneralei horretarako eskabidea ager dezan, berauek hura onartzeko—, horretara euskara zaindu eta bultzat dadin."

— 10/1982 oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilpena arauzkotzekoa (EHAA, 1982-12-16)

— Euskararen erabilpena arauzkotzeko oinarrizko Legeari buruzko ekainaren 26ko 82/1986 Epaia (EHAA, 1986-7-4).

Estatutuaren arabera, euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza izateaz gain, hizkuntza ofiziala da gaztelaniarekin batera Euskal

Autonomi Elkartean. Ofizialtasuna arautzeko, eta are gehiago, euskararen erabileraren normalizazioa arautzeko, 10/1982 Legea eman zen, Legebiltzarrean ia adostasun osoarekin onartu zelarik. Horregatik, maila goragoko araua izateagatik, udal ordenantzek errespetatu behar dute 10/1982 Legeak euskararen erabilpena araukotzekoak arautuz ezartzen duena.

Euskararen normalkuntzari dagokionez, udalak bere barne jardueran nahiz herritarrekiko harremanetan euskararen erabilera arautzeko aukera du.

Donostian 1989ko azaroan egin ziren Euskararen Lege-araubideari buruzko Jardunaldietan Kepa Larunbe jaunak aurkeztutako komunikazioan (\*) argi zehazten da udalak gai honetaz arautzeko duen ahalmena, jarraitu beharreko erizpideak ere aipatzen dituelarik:

"Nada impide que una corporación local, dicte Ordenanzas sobre el uso del euskera en su municipio (...). Se trata, en definitiva, de posibilitar en el ámbito local la utilización del euskera, que es consecuencia de la declaración de oficialidad.

Las Entidades Locales de la Comunidad que hoy conforman Alava, Guipuzcoa y Vizcaya, a la hora de dictar sus respectivas Ordenanzas, deberán tener presente además de las disposiciones normativas de rango superior y doctrina emanada de la Sentencia 82/1986 de 26 de Junio del Tribunal

Constitucional, el Decreto 250/1986 de 25 de Noviembre y lo preceptuado sobre perfiles lingüísticos en la reciente Ley Vasca 6/1986 de 6 de Julio sobre la Función Pública Vasca (arts. 97 a 99)... sin olvidar, que la regulación general sobre el uso de la lengua es competencia de las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma (Parlamento y Gobierno), como así lo preceptúa el art. 6.2. del Estatuto .

En consecuencia, las Ordenanzas municipales sobre el uso del euskera, no pueden tener la consideración de reglamentos independientes, sino disposiciones derivadas de las dictadas por los órganos competentes de las Instituciones Comunes, cumpliendo los principios de legalidad y de jerarquía normativa y siempre en atención a la gestión de los intereses propios en el ámbito de las competencias locales (...)."

---

(\*) Kepa Larunbe. "Notas sobre euskera y ordenanzas municipales" Jornadas sobre el régimen jurídico del euskera IVAP-HAEE. Oñati 1990



## UDALAREN BARNE JARDUERA

Besterik azaldu baino lehen, "administrazio atal elebidun" eta "katea elebidun" kontzeptuak argitu nahian 224/1989 Dekretuaren 12. atala ekarriko dugu hona:

1. Herri-Administrazio bakoitzak, hizkuntza normalkuntzarako bidea bermatzeko, administrazio-atal eta kate elebidunak sortu eta finkatuko ditu.
2. Dagozkien eginkizunak Euskal Autonomi Elkarteko bi hizkuntza ofizialetariko edozeinetan betetzen dituzten administrazio-atalak dira administrazio-atal elebidunak.
3. Zerbitzuak nahiz espedienteak oso osorik Euskal Autonomi Elkarteko bi hizkuntza ofizialetariko batean zein bestean eskaini edo bideratu dezaketenak dira Administrazio-kate elebidun. Horretarako, administrazio-atal elebidunetako lanpostuez gain, beste administrazio-atal batzutako beroiekin harreman zuzen eta usua duten lanpostuei ere derrigorrezko hizkuntza eskakizuna ezarriko zaie."

250/1986 Dekretuaren 12. atala eta 224/1989 Dekretuaren 13. atala irakurriz gero, hau esan daiteke:

— Udal administrazioa kokatuta dagoen eskualdearen euskaldun kopurua %0 eta %20 tartekoa denean (ikus 250/1986 Dekretuaren I. eraskina), gizarte izaerako administrazio atalak elebidunak izango dira.

— Udal administrazioa kokatuta dagoen eskualdearen euskaldun kopurua %20 eta %80 tartekoa denean (ikus 250/1986 Dekretuaren I. eraskina), gizarte izaerako eta izaera orokorreko administrazio atalak elebidunak izango dira.

— Udal administrazioa kokatuta dagoen eskualdearen euskaldun kopurua %80tik goragokoa denean (ikus 250/1986 Dekretuaren I. eraskina), atal guztiak elebidunak izango dira.

— Langilegoaren %50a baino gehiago hizkuntza gaitasunduna duten administrazio atalak elebidunak izango dira.

– 224/1989 Dekretuaren 14. atalak dioenez:

“1. Beren jardunean Herri-Administrazioaren harreman-izaera nabarmentki ageri dutenak dira gizarte-izaerako administrazio-atal.

2. Beren jarduna bereziki administrazio baitako esparruan gauzatzen dutenak dira izaera orokorreko administrazioatal.”

Udalaren barne jardunean, hizkuntza bat edo bestearen erabilerari dagokionez, interesgarri deritzogu Konstituzio Auzitegiak sarritan aipaturiko 82/1986 Epaian esandakoa hona ekartzeari:

– “es oficial una lengua, independientemente de su realidad y peso como fenómeno social, cuando es reconocida por los poderes públicos como medio normal de comunicación en y entre ellos y en su relación con los sujetos privados, con plena validez y efectos jurídicos.” (2. Oinarri Juridikoa)

– “Si es inherente a la cooficialidad el que, en los territorios donde exista, la utilización de una u otra lengua por cualquiera de los poderes públicos en ellos radicados tenga en principio la misma validez jurídica, la posibilidad de usar sólo una de ellas en vez de ambas a la vez, y de usarlas indistintamente aparece condicionada, en las relaciones con los particulares, por los derechos que la Constitución y los Estatutos les atribuyen (...)” (3. Oinarri Juridikoa)

– “Las alegaciones del Abogado del Estado de que la posibilidad de utilización de una única lengua por parte de los poderes públicos, por acuerdo de las partes concurrentes, significa la exclusión en tales casos de un idioma de uso oficial en la Comunidad Autónoma que no puede quedar sometida al principio dispositivo, no tienen en cuenta que la utilización por los poderes públicos de una sola de las lenguas oficiales puede hacerse indistintamente, por propia iniciativa o incluso a elección de los interesados, cuando así se regule, siempre que no se lesionen los derechos de ningún interesado que puede alegar válidamente el desconocimiento de la lengua utilizada, lo que sólo puede hacerse respecto de lengua distinta del castellano. El que todo procedimiento pudiera realizarse en euskera, es consecuencia natural del carácter oficial de esta lengua en la Comunidad Autónoma Vasca, que conlleva la eficacia, en su ámbito, de las actuaciones realizadas en la misma” (9. Oinarri Juridikoa)

250/1986 Dekretuak bere zioen adierazpenean dioenez:

“Herri-Administrazioen benetako hizkuntz normalizazioa lortzeko, beharrezkoa da hizkuntz politikako zenbait erizpide ezartzea, Administrazio horiek euskara hiritarren zerbitzurako hizkuntza gisa edota lan-hizkuntza gisa hartzera eraman ditzaten erabakia Dekretu hau aplikatuz hartuko delarik”.

Zentzu berean, Dekretu honen 1.2. atalak honela dio:

“Hiritarrek Euskadin kokatzen diren Herri-Administrazioekin harremanak euskaraz, Autonomi Elkarteko berenezko hizkuntzan, izateko duten eskubidea bermatzeko, euskara zein gaztelania zerbitzu-hizkuntza ofizialak izateaz gainera, lan-hizkuntza izango dira, honetarako Herri-Aginte eta aipatutako Administrazioek bidezko administrazio neurriak hartuko dituztelarik”.

Ikusten denez, euskara zerbitzu-hizkuntza izateaz gain, lan-hizkuntza ere izango da. Lan-hizkuntzari dagokionez, gaztelania eta euskara hizkuntza ofizialak direnez, herri administrazio bakoitzak bien arteko bat aukera dezake, edo biak.

Berdin zerbitzu-hizkuntzari dagozkionetan. Administrazio atal elebidunek, norbanakoak eskatutako zerbitzu nahiz espedienteak oso-osorik bi hizkuntza ofizialetariko batean zein bestean eskaini edo bidera ditzakete. Praktikan, udaletako administrazio atal elebidun guztietan, euskaraz sartzan den idazki orori erabat euskaraz emango zaio tramitazio osoa. Gazteleraz sartutako idazkiak nagusiki euskaraz tramitatuko dira. Azken helburua administrazioarengana edozein hizkuntza ofizialetan jotzeko herritarrak duen eskubidea errespetatzea izanik, herritarrari berari dagozkion administrazio ekintzak edota zerbitzuak gazteleraz ere eskaini ahal izango zaizkio kasu honetan.

## LANGILEAK KONTRATATZEKO ERIZPIDEAK

Gai honetan, ondorengo arauak kontutan hartu behar dira:

– 10/1982 oinarrizko Legea, azaroaren 24ekoa, euskararen erabilpena arauzkotzekoa. 14. atalak zera dio:

“1. Lege honen 6garren atalean aitortzen diren eskubideak egiteratu daitezten, herri-agintariek Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Herri-Arduralaritzari atxikitako lanariak arian-arian euskalduntzeko xedezko neurriak hartuko dituzte.

2. Herri-agintariek erabakiko dute zein lantokitarako izango den beharrezko bi hizkuntzak jakitea.

3. Euskal Herriko Autonomia-Elkartearen lur-eremuango Arduralaritzako gainerako lantokietara sartzeko egin daitezten bazterte-indarrezko azterketetan, beste merezimenduen artean hizkuntza ofizialen jakintzamaile hartuko da kontutan; horren haztaketa lanbide-maila bakoitzerako egingo du Arduralaritzak.”

– 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa:

– II. idazpurua, I. atalburua, 15.1. atala.

– V. idazpurua: “Hizkuntz Normalkuntza”.

– 250/1986 Dekretua, azaroaren 25ekoa, Euskal Autonomi Elkarteko Herri-Administrazioetan euskararen erabilera eta normalizazioa arautzen duena (EHAA, 1986-11-29).

– 224/1989 Dekretua, urriaren 17koa, Euskal Autonomi Elkarteko Herri-Administrazioetan euskararen erabilera normaltzeko plangintza arautzen duena (EHAA, 1989-10-27).

– 264/1990 Dekretua, urriaren 9koa, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailburuarena, lanpostuei ezarritako hizkuntza eskakizunen derrigorrezkotasuna zehazteko erizpideak finkatzen dituen (EHAA, 1990-10-26).

Hauetz gain, argitasun gehiagorako, ondoren datozen arauetara jo daiteke:

— Erabakia, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiarena, 1990eko uztailaren 5ekoa, 1., 2., 3., eta 4. hizkuntza eskakizunei dagozkien egitarauak ezartzen dituena (EHAA, 1990-7-12).

— Erabakia, 1990eko uztailaren 5ekoa, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiarena, argibide gisa, hizkuntza eskakizun bakoitzaren hizkuntza gaitasuna helduen alfabetatze eta euskalduntze egitarauetako ikasturte eta urratsei dagozkien hizkuntza gaitasunekin parekatzen duena (EHAA, 1990-7-13).

— Erabakia, 1990eko otsailaren 26koa, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendariarena, Erakunde horrek eta Euskal Autonomi Elkarteko Toki-Administrazioek, azken hauen zerbitzuko langilegoaren hizkuntza-prestakuntza dela eta, izenpetzeko duten Itun-ereduaren berri ematen duena (EHAA, 1990-3-6).

Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak eta bere garapenerako emandako 224/89 Dekretuak, 10/82 Legeak ezarritako erizpideak jasotzen dituzte beren baitan. 250/86 Dekretuak lehendabizi aipatu zituen "hizkuntza-eskakizunei" lege indarra ematen zaie Funtzio Publikoari buruzko Legearekin, eta araubide osatuagoa 224/89 Dekretuarekin.

## UDAL BATZORDEAK

Euskal Autonomi Elkartearen udal legerik oraindik eman ez denez, estatuko araubidera jo behar da, berau Autonomi Elkarteko araubidearen osagarria bait da Konstituzioaren 149.3. artikularen arabera, arlo honetako jardunbidea argitzeko.

Ilde honetatik, **Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales** delakoak (2568/1986 Errege Dekretua, BOE 1986-12-22; 305 zkia.) hauxe dio:

"Art. 86.1. Las convocatorias de las sesiones, los órdenes del día, votos particulares, mociones, propuestas de acuerdo y dictámenes de las Comisiones informativas se redactarán en lengua castellana o en la lengua cooficial en la Comunidad Autónoma a la que pertenezca la entidad, conforme a la legislación aplicable y a los acuerdos adoptados al respecto por la correspondiente Corporación.

2. En los debates podrán utilizarse, indistintamente, la lengua castellana o la cooficial de la Comunidad Autónoma respectiva."

"Art. 110.1. Será aplicable a la redacción de las actas lo dispuesto en el artículo 86.1 en cuanto a la utilización de las lenguas.

2. El acta, una vez aprobada por el Pleno, se transcribirá en el Libro de Actas, autorizándola con las firmas del Alcalde o Presidente y del Secretario".

## ERAKUNDEEN ARTEKO HARREMANAK

Udaleko hizkuntzaren trataera ez da barne jarduerara mugatzen, beste herri erakundeekin harremanak ere izan ohi ditu sarritan.

Administrazioen arteko harremanetan euskara edota gaztelania erabil daitezkeela defenda daiteke. Ondorio honen aldeko argudioak ondorengoak dira:

a) Espainiako Konstituzioak eta Euskal Autonomi Elkarteko Estatutuak euskararen eta gaztelaniaren koofizialtasuna ezartzen dute Autonomi Elkartearen eremuan.

b) 10/1982 Legean elebitasunaren aldeko aukera nabarmena da. Elebitasunaren aldeko aukera bereizkeria debekatzearen printzipioan oinarritzen da, eta printzipio honekin lotuta ulertu behar da. Herritarrei euskara hutsez edo gaztelania hutsez idazkiak zuzentzea bereizkeria egitea izan daiteke batzutan, baina ez ordea administrazioen arteko harremanez ari garenean; euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak direnez, administrazioek bi hizkuntzetan funtzionatzeko gai izan behar dute. Beraz, 10/1982 Legearen 8.2. atalaren agindua herritarrekiko harremanetarako da, ez administrazio artekoetarako:

"Euskal Herriko Autonomia-Elkarteango herri-agintariek eskuhartu dezateneko egintza guztiak, eta bai ardulararitza-mezu eta adierazpenak ere, bi hizkuntzetan egon beharko dute, doakienek berariz Autonomia-Elkarteko hizkuntza ofizialetatik bat aukeratu dezatenean salbu".

Beste era batetara esateko, herritarrek euskara jakiteko beharrik ez dute; bai, ordea, administrazioek, euskara hizkuntza ofiziala bait da.

Ofizialtasun kontzeptuaren ulermena errazteko, lehenago aipatu ditugun Konstituzio Auzitegiaren 82/1986 Epaitik ateratako

esaldiak kontutan izan behar ditugu. Bertan irakur dezakegunez, Konstituzio Auzitegiaren eritziz, koofizialtasuna aldarrikatzearen ondorioz, hizkuntza bata zein bestea erabil daiteke, beti ere herritarren eskubideak errespetatuz gero. Oraingo honetan azertzen ditugun administrazio arteko harremanetan, ordea, ez dago herritarren esku-biderik ukitzerik, eta, are gutxiago, bereizkeriarik sortzeko arriskurik.

d) Lan hizkuntza eta zerbitzu hizkuntza.

250/1986 Dekretuak bere zioen adierazpenean dioenez,

"Herri-Administrazioen benetako hizkuntz normalizazioa lortzeko, beharrezkoa da hizkuntz politikako zenbait erizpide ezartzea, Administrazio horiek euskara hiritarren zerbitzurako hizkuntza gisa edota lan-hizkuntza gisa hartzera eraman ditzaten erabakia Dekretu hau aplikatuz hartuko delarik".

Ikusten denez, euskara zerbitzu-hizkuntza izateaz gain, lan-hizkuntza ere izan daiteke. Zerbitzu-hizkuntza herritarren aukeraren arabera izango da; lan-hizkuntzari dagokionez, gaztelania eta euskara hizkuntza ofizialak direnez, herri administrazio bakoitzak bien arteko bat aukera dezake, edo biak.

### **Koofizialitatea ezartzeko erizpide mugatzailea lurraldetasuna da**

Ofizialtasunaren ondorioek Euskal Autonomi Elkartean dauden administrazio guztiak lotzen dituzte, —justizi administrazioa barne—, eta ez Euskal Autonomi Elkarteko administrazioa hutsik. Konstituzio Auzitegiaren 82/1986 Epaiazen hitzak erabiliz,

"al añadir el número 2 del mismo artículo 3.º. (\*) que las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas, se sigue, asimismo, que la consecuente cooficialidad lo es con respecto a todos los poderes públicos radicados en el territorio

---

(\*) Konstituzioaren 3.2. atalari buruz ari da



autonómico, sin exclusión de los órganos dependientes de la Administración central y de otras instituciones estatales en sentido estricto, siendo, por tanto, el criterio delimitador de la oficialidad del castellano y de la cooficialidad de otras lenguas españolas del territorio, independientemente del carácter estatal (en sentido estricto), autonómico o local de los distintos poderes públicos". (2. Oinarri Juridikoa).

Honez gain, gerora emandako 123/1988 Epaia dioenez, (Balearseko hizkuntza normalkuntzarako apirilaren 23ko 3/1986 Legearen zenbait atali buruzko 123/1988 Epaia, ekainaren 23koa. BOE 1988-7-12):

"Nada impide, en principio, según la doctrina general sentada por anteriores decisiones sobre la cooficialidad, que se extraigan las consecuencias de dicho principio en relación con todas las Administraciones Públicas, sin que a ello sea una excepción las Fuerzas Armadas".

Epai hauez gain, kontutan hartzekoak dira beste zenbait alorretan hizkuntzaren erabilerari buruz emandako arauak, udalak beste erakundeekin izan behar dituen harremanetan eragin zuzena dituztenak. Gogoratzekoak dira, adibidez:

— Justizi administrazioari dagokionez, 10/1982 Legearen 9. atalaz gain, epailaritza arautzen duen 6/1985 Lege Organikoaren 231. atala (EHAA, 1985-7-2).

— Estatuko 35/1987 Agindua, Autonomi Elkartetako hizkuntza ofizialen erabilpena Armadan arautzen duena (EHAA, 1987-6-19).

## UDALAREN ETA HERRITARREN ARTEKO HARREMANAK

Lehendabizi, Euskeraren Legearen bi atal gogorazi nahi genituzke, udalak eta herritarren arteko harremanak arautzerakoan oso kontutan hartu behar direlako:

–“4. atala. Euskal Herriko Autonomia-Elkartean hizkuntzagatik inork bereizkeriarik izan ez dezan, Herri-Aginte-sailek ardura izan eta behar daitezen neurriak hartuko dira.”

–“5. atala. 1. Euskal herritar guztiak dute hizkuntza ofizialak hitzez nahiz idatziz ezagutzeko eta erabiltzeko eskubide.

2. Euskal herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie:

a) Arduralaritzarekin eta Autonomia-elkartean kokatutako edozein lhardutze-Sail edo Erakunderekin harremanak hitzez eta/edo idatziz euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.”

(...)

Beraz, herritarrek udal administrazioarekin dituzten harremanak euskaraz edo gaztelaniaz bidera ditzakete. Aukera hau dela eta, inork bereizkeriarik izan ez dezan, herri-aginte publikoek behar daitezkeen neurriak hartuko dituzte, ahaztu gabe, ordenantzen onarpenaren helburua udalerrian euskararen erabilera zabaltea eta normaltea dela.

Udalaren eta herritarren arteko harremanak arautzerakoan ere, 10/1982 Legean esandakoa kontutan izan behar da, hain zuzen ere, 7. atalaren 1. eta 3. idazatiek, 8. atalaren 1. eta 2. idazatiek eta 13. atalak esaten dutena:

–“7. atala. 1. Autonomia-Elkartean menpeko agiripaperak herri-erroldegiataratzea, hauek nahiz Eusko Jaurlaritzarenak, bertako Erakunde Burujabeenak, Foru-Arduralaritzenak, Toki-Arduralaritzarenak, nahiz besterenak izan, egon daitezeneko hizkuntza ofizialean egingo da.

(...)

3. Hoiak erakusteko eta/edo hoiakiko egiaztapen-agiriak egiteko, Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko edozein hizkuntza ofizialetarako itzulpenaren bermea emango da.”

Ikusten denez, 10/1982 Legearen 7. atalean, besteak beste, udal administrazioetako erroldak arautzen dira.

“8. atala. 1. Euskal Herriko Autonomia-Elkartean egon daitezen Herri-Agintaritzagatikako edozein agintearaupide edo erabaki ofizialek bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du zabalkunde ofiziala egiteko.

2. Euskal Herriko Autonomia-Elkartean herri-agintariak eskuhartu dezateneko egintza guztiak, eta bai ardularitza-mezu eta adierazpenak ere, bi hizkuntzetan egon beharko dute, doakienez berariz Autonomia-Elkarteko hizkuntza ofizialetatik bat aukeratu dezatenean salbu.”

Legean aipatzen den aukera egitea erraztuko du udalak, herritar euskaldunetik harremanak euskaraz izan daitezen. Euskaraz izango dira baita euskaldunetik idatzizko harremanak, hizkuntzaren aukeraren eskubidea herritarren esku dagoela kontutan izanik, 10/1982 Legeak dioenez.

“13. atala. Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko herri-agintaritzak erabil beharreko iragarki edo itxura-eredu ofizial guztiak bi hizkuntzetan egon beharko dute.”

Herritarren aukera errespetatzen da berriz ere, euskaraz edo gaztelaniaz inprimakiak eskuratzea posible izango dutelarik.



**EUSKO JAURLARITZA**  
EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA



**GOBIERNO VASCO**  
CONSEJO ASESOR DEL EUSKERA